

## BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa CARGAMIL da, bertan etxeko mugikorrek, tabletak, erlojuak,... modu ordenatu batean gorde eta kargatzeko produktua ekoiztu eta saltzen dugu. Kaxak ekoizteaz gain, bezeroaren beharren arabera, gure produktuan jartzeko eta gailuak kargatu ahal izateko kable egokituak saltzen ditugu.

Itxura erakargarriko produktu bat izango da, eta edozein lekutan sar daitekeena. Horrela edozein etxebizitzatan, bulegotan,... jartzeko aukera egongo da. Horrez gain, oso praktikoa da, mugitzeko oso erraza delako, eta pixu gutxikoa. Gaur egungo edozein gailu modu ordenatu batean gorde edo karga daiteke.

Geroz eta tresna elektroniko gehiago ditugunez, dena modu txukun eta ordenatu batean edukitzea da Cargamil-en helburua.



Egurraren alde egitea jasangarritasunaren alde egitea da, gure ingurunea zaintzea material birziklagarria, berriztagarria, berrerabilgarria, ugaria eta naturala erabiliz. Horregatik guztiagatik, egurrak berebiziko garrantzia du klima-aldaketaren aurkako borrokan eta ingurumenaren kontserbazioan.

Zura kontsumitzeak modu aktiboan eragiten du berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien aurka.



## Gure produktuaren **abantailak**:

- **Antolaketa:** eguneroko bizitza aldatuko zaigu, esaterako, ez dugu gehiago gure mugikorraren bila ibili beharko, beti leku berean utziko dugulako, eta ez dugu besteren baten mugikorretik gurera deika aritu beharrik izango gure mugikorra aurkitzeko.
- **Txukuntasuna:** gure mugikorra leku finko batean egongo da.
- **Denbora aurreztea:** mugikorra beti kargatua edukiko dugu eta kalean ez dugu mugikorra kargatzen ibili beharko, honek denbora aurrezte nabarmen bat suposatuz dezake.
- **Diseinua:** oso erakargarria izango da itxuraz eta apaingarri giza ere erabiltzeko aukera izango dugu mugikorrik ez dagoenean ere.
- **Aplikagarritasuna:** Guk egingo dugun produktuaren berezitasunik haundiena, denetariko gailuak kargatzeko aukera izango dugula da.
- **Konpetentzia:** Bertako produktu bat da eta eroslearekiko harremana gertukoa izango da, enpresa multinazional batetik erosi ezkeren kalitate eskasagokoa eta harreman eza izango da oinarri. Arrazoi hauengatik da garrantzitsua Cargamil enpresan erostea eta ez “Amazon”, “Aliexpress” eta horrelako enpresetan. Horiek ibiltzen dituzten produktuak kanpoan eginak direlako, eta gaur egun daukagun egoerarekin bertako ekonomiari lagundu behar diogulako.